

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

709/2020 prozedura laburtura epatzea

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, argitara ematen da espedientea aurkeztu eta bidali dela administrazioarekiko auzietako Gasteizko 3. epaitegira, 709/2020 prozedura laburtuko administrazioarekiko auzi errekurtsuan. Errekurtso hori Beñat Esteibarlanda Etxeberriak eskatuta bideratu da, Legutioko Udaleko Alkatetzak 2020ko urtarrilaren 21ean emandako ebazpenaren aurka. Ebazpen horren bidez, errekurtsogilea funtzionario kargutik kendu zen.

Iragarki honen bidez epatu egiten da prozeduran interesa izan dezakeen oro, autoetan agertu eta pertsonatu dadin bederatzi eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Legutio, 2020ko abenduaren 24a

Alkatea

JON ZUAZO ZUBERO